## kolaborazioak

# Bederatzi gogoeta

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA «TXILLARDEGI» / *Idazlea*

*Arriskuak? Bi: 1) Estatalistek bat eginda, gure eskubideen kontra, «gehiengo española»ren bidetik, enbutuaren legea aplikatu, eta gogor eta gupidagabe jokatzea; 2) Lizarrako izenpetzaileen arteko batek edo bestek, «gobernagarritasuna»ren izenean, hori guztia «en el plano de las ideas» uztea, eta lehengo porrusaldara itzultzea... Zer egin? Denborarik batere galdu gabe, eta 25a baino lehenago, urrats konkretu batzuk ematen hastea. Gaur berton, bihar baino hobeki.*

Itsu batek ere ikusten du joan den irailaren 18-ko suetenaz geroztik, errotik aldatu dela giroa. Hilabete luzetan barrena geldialdi kirats itogarria Euskal Herriaz nagusitu ondoren, orain alderantzizko joera dugu begien aurrean: pozez eta itxaropenez oratua.

Ez dut nik inolaz ere neure burua esperantza-uhin orokor eta hazkor horretatik at paratuko. Ni ere sinetsita bainago, bai suetenak eta bai Lizarrako elkarketak, aurrerapausu handi baten zantzuak izan daitezkeela.




Eta, honeteraz gero, apalki baina irmoki ere bai, gure herriak behar eta merezi duen arrakesta lortzeko argigarri gerta daitezkeen bederatzi gogoeta plazaratzea bururatu zait.

1.- Suetenaren berria izatean, hauxe esan dute Madrileko indar politiko nagusiek eta hemengo beren sukurtsaleetakoek: «Gracias a la firmeza en la defensa de la legalidad vigente, la paz está ya conseguida. Sólo falta la entrega de las armas».

Hots, guztiz faltsua da argudio hori. ETA ez da euskal arazoaren jatorria, ondorioa baizik. Gakoa euskaldunon nazio-eskubideen ukazioan datza. ETAren menia mugagabe honek ez du euskal arazoa konpontzen. Baina konponbidera eraman dezakeen elkarrizketa zabal dezake.

2.- Espainiako Konstituzioa, eta Nafarroako eta Baskongadetako bi Estatuek, espainiar Estatuaren borondatea biltzen dute funtsean, ez euskal herriaren nahia. Exodeterminazio hutsa dira, eta demokraziaren oinarrian jarri behar den Auto-Determinazioaren ukaera.

3.- Urriaren 25an hauteskundeak izango ditugu. Zenbait astez, eta Estatuen «media» anti-euskaldunen besotik, amnesia politiko orokorra hedatuko da gure eskualdeetan; eta euskal nazio-arazoaren muin politikoa izkutatuko.

Ondoko aste hauetan gure herriak jasango duen alienazio-mailaz jabetu behar dugu; eta Lizarrako akordioaren bidetik, zentzuz ezarri behar ditugu oinarriak, azaroan, abenduan, eta abar, hauteskunde-giroko globoak mozorrogabetuz. Hitzetatik eginetara behar.

4.- Urte luze hauetan, HBrekin eskuz esku aberrigintzan elkarturik ez jokatzeko, arrazoin nagusi bat erabili izan dute PNVko eta EAko aberkideek: ETAren iharduera. Estakuru hori desagertua da. Geure burua abertzale jotzen dugun guztiok, eskuz esku anairiko jokatzeko garaia heldu zaigula esan daiteke, orain arteko liskarrak ahantziz.

5.- Suetenak zabaldu duen garai esperantzagarri honetan, abertzale guztiok batzen gaituen guztian behar dugu elkartu; eta berezten gaituen guztia, ahal delarik bederen, eta lege-marko berria lortu artean, bigarren mailan utzi. Etsai inperialista hortxe dago. Egun hauetan ere ezin garbikiago agertu denez.

6.- Lizarrako Akordioaren barruan aurrera jokatzeko, oso nabarmen agertzen zaigu premiatsua dugun alor bat: euskal kulturarena. Eta nazio-hizkuntzarena bereziki. Ez dago arrazoirik esparru horretan gaurdanixek geure arteko koordinazioa ez azkartzeko.

7.- Dauden gizarte-indarrak beren horretan hurbiltzen eta bateratzen saiatzea, guztiz bidezkoa da. Zalantzarik gabe. Baina gizarte-indar horiek berak aldatzen, gutartzen eta euskal-herritartzen ahalegintzea, nork bere aldetik eta bere ideien arabera burutzea, behar-beharrezko lana ere bai. Egindako alienazio-lanari egin behar zaio aurre, ausarki.

8.- Azkeneko urte hauetan, eta oso arrazoin desberdinengatik (eta ez beti besteen erruz, aitor dezagun) aukera ederrak galdu ditugu geure herria azkartuz eta sendotuz joateko. Hau egia izan arren, aurrera begiratu behar dugu orain. Eta atzean utzitako errakuntzen zauriak, polikipoliki joango dira sendatuz.

9.- Bakerako keinuen beharra azpimarratzen da egun hauetan. Hiru bederen gailen agertzen zaizkit:

- Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea.
- Zigorraren hiru laurdenak gaindituta dituzten presoak, askatzea.
- Orain txalotzen den bakeprozesoaren hastapenetan bultzatzaile nagusi izan den Mahai Nazionaleko 23 kideak (jadanik 10 hilabetez preso) berehalakoan askatzea.

Horra hor nire iritzia, argi eta garbi.

Arriskuak? Bi:

1.- Estatalistek bat eginda, gure eskubideen kontra «gehiengo española»ren bidetik, enbutuaren legea aplikatu, eta gogor eta gupidagabe jokatzea.

2.- Lizarrako izenpetzaileen arteko batek edo bestek, «gobernagarritasuna»ren izenean, hori guztia «en el plano de las ideas» uztea, eta lehengo porrusaldara itzultzea.

Ez bata ez bestea lirateke lehenengo aldiz gertatuko.

Zer egin? Denborarik batere galdu gabe, eta 25a baino lehenago, urrats konkretu batzuk ematen hastea. Gaur berton, bihar baino hobeki.

## hemeroteka

**El Mundo**

### Preguntas

*Javier Ortiz*

El cese de hostilidades decidido por ETA el pasado miércoles se diferencia de otros anteriores no sólo por su carácter indefinido e incondicional, sino también –y sobre todo– por su destinatario: esta mal llamada «tregua» no es un gesto dirigido al Estado español, sino a las fuerzas políticas y sociales vascas que asumen la defensa del derecho de autodeterminación (no sólo a las nacionalistas: también incluye a IU-EB). ETA les viene a decir: «Durante tres décadas, yo me he dedicado a matar y poner bombas a partir del convencimiento de que el Estado español no tolera nuestros fines políticos. Vosotros me insistís en que es posible alcanzarlos por vía pacífica y democrática. Os concedo el beneficio de la duda. Dejo de disparar. Y ya veremos».

Cumple comprobar ahora si efectivamente las metas políticas a las que se refiere ETA –y que han sido resumidas en la Declaración de Estella en lo que de común tienen a todos sus firmantes–, son perseguibles, y eventualmente alcanzables, por vía pacífica.

Siempre se ha dicho –es casi un tópico– que en nuestro Estado de Derecho cualquier posición política es defendible. Y así es, en términos generales. Pero ésa no es la cuestión fundamental. Para quien quiere algo, lo esencial no es que le permitan pedirlo, sino que se le conceda la oportunidad de obtenerlo. De lo contrario, lo único que se le otorga es el no muy reconfortante derecho al pataleo.

Lo cual nos conduce directamente –al verdadero– dilema: ¿existe, así sea como mera hipótesis, la posibilidad de que el pueblo vasco obtenga el derecho de autodeterminación, entendido como derecho a decidir si quiere separarse de España y, en caso contrario, a negociar en tanto que entidad soberana en qué condiciones forma parte del Estado español?

Es una pregunta que remite a dos campos de cuestiones, ambos verdaderamente peliagudos.

Uno es el referente al sujeto de la soberanía: hay que decidir qué se entiende por «pueblo vasco». ¿Son o no son vascos –quieren o no serlo– los habitantes de, por ejemplo, Lesaka, Lekunberri o Lizarra? ¿Y los de –otro ejemplo– Tudela, Cintruénigo o Fitero? ¿Y los que –otro ejemplo más– en vez de DNI llevan en el bolsillo una «Carte d'Identité»? Es lo que se ha llamado «la cuestión de la territorialidad». Intrincado mejunje donde los haya, en el que se entrelazan decenas de subcuestiones.

Pero ni siquiera vale la pena plantearse ese problema si previamente no se ha resuelto otro: ¿estarán dispuestos los españoles no vascos –y los vascos que se sienten irrenunciablemente españoles– a admitir la posibilidad de que el destino de Euskadi pueda ser decidido por alguien que no sea el pueblo español en su conjunto?

Dejo estas preguntas en el aire. Me limitaré por ahora a formular una profecía: pronto habrá más de uno que añorará los tiempos en los que ETA impedía que todo este asunto pudiera plantearse.

**ABC**

### Hay que votar

*Alfonso Ussía*

No eran ayer perversos y hoy son arrepentidos. No eran ayer terroristas y hoy son pacíficos demócratas. Eran y son perversos, y eran y son terroristas. (...) La acción judicial, protagonizada por Baltasar Garzón, hiere en dos frentes fundamentales la impunidad e inmunidad de que gozaba el movimiento terrorista vasco. La red de financiación de ETA es desmantelada. ETA se queda sin Hacienda, y sus principales responsables son procesados y encarcelados. No pasa nada. ETA se queda también sin su instrumento de propaganda, sin su medio de información, sin su boletín de consignas y órdenes. El diario «Egin» es intervenido y cerrado. No pasa nada. El tiempo pasa y a los pocos meses nadie se acuerda de los forajidos de HB condenados, de los forajidos de la red de financiación encarcelados y de los forajidos de «Egin» procesados y en chirona. La sociedad los ha olvidado. No importan un pimiento. Nadie se acuerda de ellos.

(...) Entonces encuentran la mano, siempre dispuesta, de los nacionalistas, de los que recogían el fruto cuando ellos zarandeaban el árbol. Ya también preocupados por los vaticinios electorales, se inventan lo de la tregua. Lo han hecho porque la sociedad les ha avisado. Hace años, habrían seguido unos y otros sus propios caminos y estrategias.

Luego viene lo del melón de Ardanza, el diálogo con el «Estado anfitrión» de Eguíbar –inconmensurable cursilería y contrasentido imbécil–, y el camino «hacia la paz». La soñada paz, para ellos, es su paz, y su paz sólo es posible con sus objetivos políticos alcanzados. Por ello, la cita electoral del 25 de octubre es la más importante de cuantas se han celebrado en el País Vasco.

(...) Hay que votar. Los resultados tienen que indicarnos a todos cuál es la realidad social de Euskalerría. No pueden los vascos dejar pasar la oportunidad de hablarnos al resto de los españoles con el idioma de los votos. Tienen que saber los nacionalistas que no son ellos los dueños del País Vasco. O quizá tenemos que saber los que creemos en la españolidad de Euskalerría que la mayoría está con los que ya no nos quieren.

(...) La abstención, en este caso, es más que una inmoralidad. Es el silencio del entregado. El sometimiento al tabú (...).